

LAN BATZORDE IREKIAK**TALDEA****OBRA BATZORDEA****IRAUPENA****1.5 ordu****EGUNA****2018-02-27****GAIA****DEIALDIA****PARTE HARTZAILEAK**

Endika Igarzabal

Iñaki Etxezarreta

Asier Agirre

Jose Kruz Baztarrika

Xabier Barriola

Jose Ramon Peñagarikano

ERABAKIAK**GAIA****EKINTZAK****ARDURA
DUNA****NOIZKO****ARGITERIA**

- 40.000€ko kostua dauka eskolako instalazioa berritu eta eguzki plakak jartzeak. Ez da errentagarria.

AZTIKOTABERNA

- Egin beharreko lana eginda daude eta martxan dago. 7 urterako alokairua.
- Etxebizitza Sailean herrikoak diren etxebizitzak konpontzeko diru laguntzak omen daude, 600€ metro karratuko. Mutiloako udala ari da gaia lantzen. Enteratzekotan geratu gara.

BASERRIBIDEAK

- Laguntzak atera dituzte eta dauzkagun eskaerak landuko dira.
- Ordenantzari buelta batzuk eman beharra ikusten da. Orain arte aplikatu denetan ikusi dira hobetzeko hainbat puntu eta.

MINATAKO BIDEA

- Proiektua eginda dago.
- Abokatuarekin kontsultatu da, eta honen arabera bide hau jabetza pribatua da, baina erabilera publikoarekin.
- Konpromezua hartu zen bere garaian Mutiloako udala eta Aldundiarekin, bide horri konpondu bat emateko. Diru partida bat gordeta dago horretarako. Datozen asteetan bilerak egingo dira honi buruz.

EIT INSPEKZIOA

- Bidali zaie notifikazioa dagozkien etxeei.

OSTATU

- Obra guztiak amaituta daude. Leader edo Erein-en laguntzak eskatuko dira.

ALEGI AUZOA	<ul style="list-style-type: none"> • Azken berrien arabera, errepide bazterretik egingo da espaloia. • Armandegi pare horretan eta lehenago dagoen kruzean aktuazio bat egiteko asmoa dago. 		
LANDA GARAPENA	<ul style="list-style-type: none"> • Ur kloratua zein etxetan dagoen jakiteko diagnostiko bat atera du Jauraritzak. Gabiriako datu askorik ez dago, eta beraz begiratu bat eman beharko zaio. • Martxoaren 14rako bete behar dira datuak. Gabirian etxe asko daude herriko urik ez daukatena. • Aprobetxatu liteke aukera hau ur zikinen egoeraren diagnostiko bat ere egiteko. 		
DATOZEN OBRA POSIBLEAK	<ul style="list-style-type: none"> • Autobus geltokia eginda dago. • Orbeldegiko errepide zatia uda alderako utziko da. 		
Rallysprinta	<ul style="list-style-type: none"> • Betiko bidean egingo da. 		
OSTATU AURREKO APARKALEKUAK	<ul style="list-style-type: none"> • Eguraldiak laguntzen duenean margotuko da auzolanean. 		
PANEL INFORMATIBOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Herriguneko panela aparkalekuko marrak margotzearekin batera jarriko da. • Alegin, bertako obrak bukatzean jartzea da asmoa. 		
TROIAKO MEATEGIA	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago berririk. 		
AUZOLANA	<ul style="list-style-type: none"> • Ondo atera ziren. Asegurua egin da aurten, eta aurrera begira ere egin behar dela ikusten da. 		
ARROAKO PROIEKTUA	<ul style="list-style-type: none"> • Eskumena lurjabeena da, eta beraz udalak lagundu soilik egin dezake. • Herrirako duen interesa ikusita, bilera bat egin beharra ikusten da beraiekin egoera zein den galdetu eta animatzeko. 		
UDALETXEKO KOMUNA	<ul style="list-style-type: none"> • Udaletxeko komunak ez ditu baldintza egokiak betetzen eta irisgarritasunarekin erlazionatutako diru laguntza eskatuko da hau berritzeko. 		
FRONTOI AZPI	<ul style="list-style-type: none"> • Aurtengo neguan ez da arazorik sortu, ez duelako euri golpe handirik egin. Hala ere, aurreikusitako obra egin beharra ikusten da. Aurrekontua: 4500 + BEZ. • Bizilagunek esan digute, aurreko asteko euriteekin, alibiaderotik ez zela urik ateratzen, teorian ur guztia atera beharko luken tokitik, arketaren irteera nagusia itxita dagoelako. Badirudi ura beste nonbaitetik ateratzen dela. Begiratu bat eman beharko zaio. 		

ESKOLA	<ul style="list-style-type: none">• Irakasleek eskatuta, bi gelen arteko horma bat kendu eta kristala jartzea ari gara aztertzen. 10.000€ko aurrekontua dauka, eta diru laguntza eskatuko da.		
---------------	---	--	--

Hurrengo bilera: Apirilak 10, 19:00tan